

Alizia Haurrentzat

Lewis Carroll

Itzultzailea: Manu Lopez Gaseni

2004

Pamiela

Hamar urteren buruan ikusi du argia, argialetxe eta itzultzaile berberen eskutik, *Alizia Haurrentzat* izeneko egokitzapenak. Mimo handiz egindako edizioa, orduko hura bezalaxe, eskuartean duguna. Iduri du Lewis Carrollen beraren nahia bete nahi izan dutela liburu honekin: zero eta bost urte bitarteko haurrek liburu hau ez irakurtzea, baizik eta "begiztatzea, zimurtzea eta musukatzea". Eta bai, esango nuke, gainera, liburuak duen erakargarritasun estetikoarengatik, irakurtzeko baino poliki arakatzeko, dastatzeko, entretenitzeko liburua dela. Hala, denbora luzean egon daiteke bat John Tenniel-en maisu-lanari, irudi, kolore eta detaileak aztertzen eta gozatzen. Bizitza osorako gelditzen diren irudi horietakoak dira, haurtzaroan behin eta berriro begiratzearen begiratzeaz nork bere iruditerian ondo landu eta finkatutakoak.

Urtetan askoz ere aurrerago egindako haurrentzako eginak dira, ordea, hasierako "*Ume maitagarri bat*" poema eta hitzaurrea, "*ama orori zuzendua*", zeinetan Lewis Carrollek bere asmo eta nahien berri ematen digun. Berdin egina da, haur handientzako Gibel Solas zehatz bezain mamitsua, non, edizio kanonikotik egokitzapenerako prozesuaren zergatiak eta xehetasunak (narratzailea, espazioa eta denbora, anbiguotasuna apurtzea...) emateaz gain, itzultzaile-apailatzaileak bere asmo eta nahien berri ematen digun: "Erraz eta gogoz irakurtzen den *Alizia haurrentzat* amoltsu honetatik, egunen batean, irakurleak *Aliceren abenturak lurralde miresgarrian* irakurri eta bere sakonean ulertzera iritsiko balira, haur literaturak Literatura-zaletze lanean betetzen duen tarteko pausoaren funtzio urrezko testu baten bidez emana legoke".

L. Carrollek *Aliceren abenturak lurralde miresgarrian* lehendabizikoz argitaratu zuenean egundoko arrakasta izan zuen eta horen jakitun argitaratu zuen, handik urte batzuetara, *Alizia Haurrentzat*. Edizioa hau, bestalde, bost eta hamar urte bitartekoentzat jotzen omen da egoki gaur eguneko ikuspegitik. Irakurleen adin-zehazte hori kontu eztabaidagarria eta are eremu labankorra dugu, egiazki. Horretan sartu gabe, erraz

onartzeko modukoa, nik uste, bi irakurketa-maila bederen bereiz ditzakegula: idazleak darabiltzan baliabideez jabeturik egiten dena (helduona) eta besterik gabe testua bere horretan deanes egiten dena (haurrena).

Aurreneko mailako irakurketa eginez esan dezakegu berrikuntza handia suposatzen duela haur literaturan fantasia lantzeko modu horrek, garai hartan ezarritako baloreak kolokan jartzeak, irudiaren (John Tenniel-en irudi ederren) eta testuaren arteko lotura estuak, zentzugabetasuna modu naturalean azaltzeak... Lehenengo irakurketa-maila horrek badu, gainera, abantaila bat: irakurleak badaki XIX. mendean idatzitako liburu bat duela aurrean.

Bigarren irakurketa-mailan, esan egin beharko genieke haurrei garai batean idazten ziren bezala idatzitako liburua dela. Ze, bestela, nekez onartuko dituzte haur irakurtzaileek narratzailearen hainbat intromisio, narrazioarekin zerikusirik ez dutenak. Probokatzailerak da, ordea, kontakizuna eta pentsarazi egiten dizu ezinbestean, non ez zaituen haserrearazten . Egin froga, bestela, honako zatia irakurriz edo haur bati kontatuz: " Imagina ezazu *zeure* urtebetezerako opari bat egin nahi dizutela. Zer irudituko litzaizuke armairutik *zeure* panpinarik politena hartu eta esango balute: 'Hona hemen, maitea, zuretzeko urtebetetze opari eder hau'? Ala nahiago zenuke lehendik *zeurea* ez zen gauza *berri* bat jasotzea?"

Mikel Garmendia